ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 28a, asteazkena • 124 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

"Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua"k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2026ko urriaren 20ean egindako bilkuran, 680/2026 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

""Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektuaren" eraginpean dauden ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna. Proiektua eta haren eraginpeko ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 4ko 539/2026 Erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion "Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua"ri eta proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideak banan-banan eta modu zehaztuan jasotzen dituen zerrendari, eta jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea bete zuen.

Jendaurrean jartzeko izapidean, idatzizko alegazioak aurkeztu dituzte desjabetze espedienteko 4/000, 8/000 eta 9/000 finkei buruz, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi ondoren, bere egiten ditu Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako eskaerak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Aurkeztutako alegazioei erantzun ondoren, behin betiko onetsi behar dira proiektua eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, aurkeztutako alegazioei eta eragindako finken egungo aprobetxamenduei emandako erantzunaren arabera egina.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 24.185,82 eurokoa da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuaren artikulu bakarrean xedatzen da ezen presakotzat joko direla herriak hornitzeko erabiliko diren urak edateko ur bihurtzeko obrak, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

Hori dela eta, ulertzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legean xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren obra publikoa proiektatu eta gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 6.e) artikuluetan jasotakoaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeari begira onura publikoaren adierazpena dakarten proiektuak onesteko eta desjabetzeak eragingo dituen ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko, hala xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8.1.c).7 artikuluan.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea "Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua", onura publikoaren adierazpenarekin.

Bigarrena. Erantzutea "Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua" ren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei, baietsiz edo ezetsiz, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak emandako txostenaren arabera.

Hirugarrena. Onestea "Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua" ren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina honekin batera doan eranskinean jaso baita.

Laugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Bosgarrena. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Seigarrena. Esleitzea 24.185,82 euro 15302. G/452150/62190150 Azpiegitura Hidraulikoen Lurrak Eskuratzea izeneko aurrekontu partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzetik eratorritako zenbatekoei erantzuteko.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko behar diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Betearazteko Foru Arauak.

Zortzigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Lantarongo Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 21a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila

Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO

Caicedo Yusoko hornidura Leziñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua
Proyecto constructivo de conexión del abastecimiento de Caicedo Yuso al depósito de Leciñana del Camino

ERANSKINA / ANEXO

Udal Mugartea / Término Municipal: Lantarón

Esp./Expte. 2026/7

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA: Hornidura akueduktua (3 m)		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²			DÍA	HORA
		POLÍGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE: Acueducto de abastecimiento (3m)		
2/000	RUIZ DE LOIZAGA FERNANDEZ DE LABASTIDA, JOSE RUIZ DE LOIZAGA ORIVE, M.ISABEL RUIZ DE LOIZAGA ORIVE, MARIA ALTAMIRA	6	91	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	213	24	18/11/2026	10:00
4/000	DURANA DIAZ DE LEZANA, TEODORO	4	537B	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	6	2.726	569	18/11/2026	10:45
9/000	DURANA DIAZ DE LEZANA, TEODORO	4	495A	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	3	1.954	388		
7/000	ARAICO LOPEZ DE TURISO, PAULINO	4	517	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	532	105	18/11/2026	12:15
14/000	SABANDO FRIAS, FLORENCIA RUIZ DE LOIZAGA SABANDO, IÑIGO	4	469A	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	2.512	711	18/11/2026	13:00
1/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: SALCEDO	6	90B	Larrea B / Pasto B	0	490	103	19/11/2026	10:00
3/000	ORTIZ RUIZ, J.LUIS	4	899	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	5	4.124	756	19/11/2026	10:45
5/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: LECIÑANA DEL CAMINO / LEZIÑANA	4	538	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	22	3	19/11/2026	12:00

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA: Hormidura akueduktua (3 m)		
		DATOS CATASTRALES			SUPERFICIE AFECTADA m²				
Nº FINCA	TITULAR	POLÍGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE: Acueducto de abastecimiento (3m)	DÍA	HORA
6/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: CAICEDO YUSO	4	516	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	252	51	19/11/2026	12:45
11/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: CAICEDO YUSO	4	497A	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	819	164		
15/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: CAICEDO YUSO	4	912A	Ez-emankor / Improductivo	0	37	9		
10/000	MARTINEZ ORTIZ DE ZARATE, IGNACIO	4	496C	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	94	20	20/11/2026	10:00
			496A-B	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	1.568	313		
12/000	GOMEZ ORTIZ, MARTINA GARCIA GOMEZ, FRANCISCO JAVIER GARCIA GOMEZ, M.MAR	4	491E	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	3	2.116	421	20/11/2026	10:45
13/000	GUINEA MENDOZA, ALBERTO	4	475A	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	6	1.057	264	20/11/2026	12:00
8/000	GUINEA MENDOZA, ALBERTO	4	503H	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	5	3.895	837		
			503I	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	327	7		

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.28 06:52:46 Z